

DONOSTIA INNOVATION CHALLENGE 2022

DONOSTIAKO 443 IKASLEEK HIRIA HOBETZEKO IRTENBIDE BERRITZAILEAK ESKAINI DITUZTE TEKNOLOGIA DISRUPTIBOAK ERABILIZ.

Aurten ere, Donostiako Sustapenak Donostia Innovation Challenge-aren edizio berri bat antolatu du, hiriko gazteek proiektu bat diseinatzen eta kudeatzen ikasi dute enpresa kudeaketa eta ikuspegi teknikoak. Aldi berean, gaitasun pertsonalak/softskill-ak nahiz gaitasun teknikoak entrenatu dituzte modu original eta dibertigarri batean

Aurtengo Donostia Innovation Challenge-a irailean hasi zen, parte hartu duten Donostiako 11 ikastetxeetan (bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikastetxeak, Lanbide Heziketako ikastetxeak eta unibertsitate-zentroak) aurrera eramandako teknologien eta lantaldeen zozketarekin. Harrezkero, taldeek hainbat saiotan parte hartu dute berrikuntza-proiektu bat etapa ezberdinetan nola kudeatu ikasteko: diseinua eta plangintza, garapena, jarraipena, etab.

Berriz ere, hautatutako teknologiei lotutako 13 enpresa eta zentro donostiarren laguntza izan dugu, besteak beste, beren proiektuak eta produktuak ikasleei hurbildu zizkietelako urriaren 25ean egin zen Showroom teknologiko handi batean.

Gainera, ikasleek egindako lanaren jarraipena egin da online tutoretzen bitartez eta errefortzu-material ugari partekatu dira ikasleekin programaren plataforma interaktiboan.

Teknologia disruptiboak (Adimen Artifiziala, 3D Inprimaketa, Errealitate Mistoa, Gauzen Internet eta Robotika Aurreratua) erabiliz hiria hobetzeko irtenbide berritzaileak bilatzen lau hilabeteko lana burutu ondoren, Parte hartu duten ikasle guztiak Kursoalean elkartu ziren Donostia Innovation Challengearen edizio honi amaiera emateko urtarrilaren 31ean.

Programa amaierako ekitaldiaren aurretik, jasotako 70 proposamenetatik 5 finalista hautatu ziren, eta amaierako ekitaldian, erakunde laguntzaileetako kideek osatutako epaimahai batek, proiektu finalistek aurkezpenak entzun ondoren, aurtengo proiekturik onena zein izan den erabaki zuten. Horretaz gain, ekitaldian parte-hartzaileek egindako lan gogorra zoriontzeko hainbat sari banatu ziren. Kategoria ezberdinetan saritutako proiektuak honako hauek izan ziren:

TEKNOLOGIARI LOTUTAKO SARI KATEGORIAK	PROIEKTUA	HEZKUNTZA ZENTROA
3D Inprimaketa, erabilera onena	FERULAPP	Axular Lizeoa
IOT, erabilera onena	OUTFIT CHECK	EHU/UPV
Adimen artifiziala, erabilera onena	WAE	Ekintza Ikastola
Robotika aurreratua, erabilera onena	PICK A BOOK	Easo Politeknikoa
Errealitate mistoa, erabilera onena	PHOBYE	Ceinpro

SARI KATEGORIA	PROIEKTUA	HEZKUNTZA ZENTROA
----------------	-----------	-------------------

Diseinurik onena	AMBUDRON	Saint Patrick's English School
Bideragarritasun eta kudeaketa ekonomikoa	TRAFFIC LIGHTS	Aldapeta Maria Ikastetxea
Jarrera-balioak prozesuan zehar	CLEAN WAVES	Altza Institutoa
Gizarte eragin gehien izan duen proiektua	ELDER-I	Cebanc
Proiektu berritzaileena	NANOPROTECH	Ceinpro

SARI KATEGORIA	PROIEKTUA	HEZKUNTZA ZENTROA
DONOSTIA INNOVATION CHALLENGE 2022-ko proiektu onena	FERULAPP	Axular Lizeoa

INFORMAZIO GARRANTZITSUA:

- 11 ikastetxe eta 443 parte-hartzaile (Patrick' s english School, IES Altza BHI, Axular Lizeoa, Ekintza ikastola, Aldapeta Maria Ikastetxea, Nazaret Fundazioa (Batxilergoarekin eta Lanbide Heziketarekin), IES Xabier Zubiri Manteo BHI, EASO Politeknikoa, Cebanc, Ceinpro, EHU)
- 13 erakunde laguntzaile (Domotek, Tecnun, Nuavis, Irisbond, Skootik, CEIT, Ikusi, Ikor, Cybersurgery, Bionostia, Naru Intelligence, Vicomtech eta Developair)
- 200 saio Donostia Innovation Challenge plataforman
- 4 hilabeteko lana: 2022ko urria - 2023ko urtarrila
- Programaren historikoa: 6 urtean, 2300 parte-hartzaile, 45 zentro eta 50 erakunde laguntzaile.